

MUGIMENDU FEMINISTA MOTOR, NESKA* GAZTEOK ERREGAI

Euskal Herriko mugimendu feministaren erraiei begira jartzean, argi ikus dezakegu Euskal Herriko mugimendu feministak mobilizatzeko eta hainbat borroka pizteko ikaragarriko gaitasuna erakutsi duela eta Euskal Herriko gehiengo sozialak mugimendu feministaren aldarri nagusiekin bat eginez, azken urteetako mobilizazio jendetsuenak bizi izan ditugula. Argi esan dezakegu Euskal Herriko agenda politikoan eragiteko gaitasuna duen agente politiko bilakatu dela mugimendu feminista.

Ikaragarriko salto kualitatiboa eman du mugimendu feministak, ez ditu soilik aldarrikapen zehatzak mahai gaineratzen, bizitzak erdigunean jartzea helburu duen proiektu integral bat plazaratu du. Proiektu integral honen baitan, zapalkuntza espezifikoak pairatzen dituztenen bizitzak erdigunera ekartzeko beharra azaleratu du, azpimarratuz, zapalkuntza propioei aurre egiteko subjektu propioen beharra, hauek mugimendu feministaren baitan artikulatuz, beti ere ahots propioa izanik.

Baina argi ikusi dugu kapitalismoak feminismoaren olatu hau bereganatu nahi duela eta gizartean honen asimilazio bat ematen ari dela.

Aipatzekoa da Euskal Herriko txoko ezberdinetan antolatua eta saretua dagoen mugimendu bat dela. Honez gain, Mugimendu Feministaren erabakitze eta antolakuntza markoetan dabilen emakumeen gehiengoa ez da neska* gazte subjektuarekin identifikatzen. Jakin badakigu neska* gazteak egon badaudela baina mugimendu feministak belaunaldi berriak erakartzeko zailtasunak ditu. Hala ere, neska* gazteok gure partetik, ekin diogu elkarren artean antolatzeari eta behar eta zapalkuntza propioez hausnartzeari.

GURE FUNTZIOAK ETA EGINKIZUNAK:

Honengatik guztiagatik mugimendu feministaren funtzioak ondorengoak izan beharko liratekeela pentsatzen dugu:

Alde batetik, olatu feminista hau politizatzea eta artikulatzea izan beharko litzateke mugimendu feministaren funtzioetako bat. Neska* gazteoi dagokigunean, kontuan hartzekoa da feminismoaren asimilaziotik asko edaten dugula, batez ere sare sozialen bidez. Honengatik, beharrezkoa jotzen dugu belaunaldi berriak politizatzea eta mugimendu feministara iristeko zubi lanak egitea. Esan bezala, sistema heteropatriarkal kapitalistak bere makinaria guztiak martxan jartzen ditu neska* gazteok feminismoz makilatutako diskurtsoak irensteko. Honegatik, beharrezkotzat jotzen dugu, neska* gazteei gure diskurtso feminista zabaltzea, biolentzia eta zapalkuntza patriarkalaren aurpegi guztiak ikusaraztea eta honetarako borroka molde eta forma berriak mahai gaineratzea. Politikoki zuzena den horren inguruan hausnartzera eta desnormalizazio egoerak sortzera gonbidatu nahi ditugu neska* gazteak. Gure ekinbidea erradikala eta zirikatzailea izan behar da, mugimendu feministaren erregai izan behar gara. Honez gain, egun puntaletatik haratagoko estrategia bat garatu behar dugu eta salaketa plano batetik eraikuntzara salto egin behar dugu, gizartean benetan inziditzeko eta garaipen txikiak lortzeko.

Mugimendu feministaren beste helburuetako bat, parte hartze politikorako espazioak sortzea izan beharko litzateke. Neska* gazteon kasuan, neska* gazteon espazio propioak garatzea garrantzitsutzat jotzen dugu arrazoi ezberdinetatik, baina parte hartze politikolari dagokionean, kontuan hartzekoa da neska* gazteentzat lehenengo esperientziak izan ohi direla hauek. Honez gain, antolakuntzaren beharra azpimarratzea eta era kolektiboan politika egiteko beharra azpimarratzen dugu.

Zapalkuntza propioak paraitzen ditugu eta beraz, zapalkuntza hauek pairatzen digun eremuetan eragin behar dugu, hala nola, hezkuntzan, lan eremuan, modan, gorputz eremuan, sare sozialetan jai guneetan...

NESKA* GAZTE SUBJEKTUAREN EZAUGARRITZEA:

Neska* gazteok gaztetasunak zeharkaturiko problematika espezifikoa bizi dituen subjektu politiko bat gara. Alde batetik neska* eta gazte izatearen gurutzaketak hainbat zapalkuntza biderkatzen ditu, eta bestetik problematika eta borrokarako kokaleku espezifikoa ematen digu.

Gaztetasunak, emakumetasunak* bezala, arrazoia eta jakintza kentzen digu. Honek gure parte hartze politikoan zuzeneko eragina dauka, baita emakumeon* espazioetan ere. Zapalkuntza hau identifikatzea eta parte hartze politiko efektiborako eta ahalduntzerako tresnak eta espazioak irekitzea da gure erronka.

Bestetik, **neska* gazte bezala problematika espezifikoak** pairatzen ditugu. Gaztetasuna garapen aro bizia da sisteman integratzearen eta emantzipazio sozialaren arteko borrokan ematen dena; prozesu horretan gazteok gure bizi-proiektuaren oinarriak eraikitzen ditugu. Neska* gazteen sozializazio prozesuan hainbat egitura sozialek parte hartzen dute, sistema kapitalista heteropatriarkalaren erreproduzioaren norabidean eraginez, eta beraz, prozesu honetan ikuspegi askatzaile batetik eragitea da neska* gazteen erronka, hau da, feminismitik eragitea.

Ikuspegi horretatik gure bizitzetan eragiten duten hainbat eremu aztertu ahalko genituzke, neska* gazte feministontzako borrokarako esparru direnak. Horietako esparru batzuk dira honakoak:

- Familia:

Familia, jaiotzen garenetik, oinarrizko euskarri afektibo, material eta ideologikoa da, eta beraz, gure sozializazio prozesuetan paper garrantzitsua jokatzeko du. Familia eredu hegemonikoak nuklearra izaten jarraitzen du nahiz eta bestelako familia ereduak ugaritzea ematen ari den, oraindik ere zailtasun objektiboak baitaude bestelako bizikidetzak unitateak eraikitzeko. Familia nuklear hegemonikoa bikote heterosexual monogamoan oinarritzen da, eta lanaren banaketa sexuala erreproduzitzen du.

Familiak eredu hegemoniko hau erreproduziora bideratutako sistema bat da, gizartean trinkotuta dauden emakumeon "betebeharrak" bermatzeko formula bat, beraz, bizi-eredu askatzaileak garatzeko aukerak zailtzen ditu.

- Hezkuntza:

Hezkuntza sozializatorako espazio nagusietako bat da, baloreak eta arau sozialak transmititzen, baita jakintza espezifikoa batzuk ere. Hezkuntza sistema osotasun sozialaren baitan aztertuz gero kapitalismo patriarkalak zeharkaturik dago, eta beraz, neska* gazteen erronka bat da eremu hauei alternatiba feminista bat eraikitzea: hezkidetzak elkarrekin landuz, autodefentsa feministaren bidez heziguneak espazio aske bihurtuz, edota ikasgaiak ikuspegi feministatik aztertuz eta irauliz; izan ere, heziguneek neska* gazteen arteko aliantzak sortzeko aukerak potentziala aztertuta, gure borroka plazaratzeko ezinbesteko espazio dira.

- **Prekarietatea:**

Prekarietateak neska* gazteoi modu berezitan eragiten digu bizitzako esparru guztietan, gure bizi proiektuaren eraikuntza ezegonkortasunez betetzen du eta beraz, baldintzapen ekonomiko horren aurrean zaurgarriago bihurtzen gaitu. Prozesu horretan, ahalduntzeko tresna espezifikoak behar ditugu neska* gazteok. Mutil gazteekin alderatuta dauzkagun baldintza material eskasagoek (lan banaketa sexualaren hastapena eta baita enplegu banaketarena ere) zailagoa egiten dute bizi-proiektu baten eraikuntza.

- **Gorputzen merkantilizazioa eta osasuna:**

Gorputzen merkantilizazioaren ondorioak neska* gazteok ere pairatzen ditugu, gorputz perfektuaren bila aritu behar izaten garelarik, kanon estetiko guztiak bete nahian sozialki onartuak eta desiragarriak izateko. Honek osasun arazoak ekartzen dizkigu hainbat neska* gazteri, fisikoak baina baita psikologikoak ere, maila ezberdinetan. Hori dela eta, edertasunaren eta irudiaren eraikuntza sozial horri alternatibak eraikitzea eta borrokatzea beharrezkoa izango da. Gure gorputzekiko autodefentsa mental, emozional zein fisikoak praktikan jarritz, modu pertsonal zein kolektiboan.

- **Sexualitatea:**

Gaztetasuna sexualitatearen eraikuntzan garapen aro bizia da, ikasteko eta desikasteko tarte da, baina horretarako beharrezkoa dugu eredu berriak ezagutzeko aukera izatea. Garrantzitsua izango da heteronormaren deseraikuntzarako estrategiak garatzea.

- **Jai Guneak eta eraso sexistak:**

Jai guneetan biltzen gara aisialdirako gazte asko, baina eremu hauek ez dira espazio askeak emakumeontzat*. Espazio hauetan bereziki neska* gazteok parte hartzen dugunez gero, erronka berezia daukagu eremu hauetan autodefentsa feministarako tresnak garatzean: prebentziorako tresnak sortuz, erantzun protokoloak garatuz, elkartasun sareak ehunduz...

- **Sekurokrazia:**

Azken aldian bereziki europar gizarteetan neska* gazteon segurtasuna aitzakia bezala erabiltzen ari da gure segurtasunaren izenean bestelako talde sozialak baztertzeko arrazakerian edo bestelako elementuetan oinarriturik (klasismoa, arrazoi erlijiosoak...).

Gainera, badira onarpen soziala jasotzen ari diren zenbait mugikorrerako aplikazio, feminismoaren izenean sortuak, non gure segurtasuna etengabeko jarraipenen bitartez bermatzea saltzen diguten, polizia gehiago eta eskina guztietan segurtasun kamara bat jartzearen logika berdinean mugitzen direnak, arazoaren errora jo gabe, gizartearen eraldaketarik bilatzen ez dutenak eta gainera gure bizitzak "gran hermano" batean bilakatzen dituztenak, erantzukizunaren fokia, beste behin gudan jarritz.

Horren aurrean erronka garrantzitsua dugu ikuspegi hau konfrontatu eta gu bestelako zapalkuntzak justifikatzeko ez erabiltzeko, horretarako gure buruak ahaldunduz eta autodefentsa feminista aldarrikatuz, gizartearen errotiko eraldaketa bat lortzera bidean.

Borrokarako esparru guzti hauei erantzuteko beharrezkoa da saretuta egotetik egituratua dagoen subjektu politiko izatera salto egitea. Egituraketa horretan parte hartzerako espazio anitzak eskainiz subjektu heterogeneo izatera bidean, gure pribilegio propioak aztertuz eta horiekin apurtuz, izan ere gaur egun nahiko hegemonikoa den subjektu bat gara.

Espazio hauen eraldaketarako eta gure borroka aurrera eramateko beharrezkoak ditugu

aliantzak. Aliantza horiek gure bi ezaugarri nagusiei erantzunez eraikitzea jotzen dugu lehentasunezko bezala. Beraz, aliantzarik garrantzitsuena neska* gazteon artekoa bada ere, mugimendu feministaren zein gazte mugimenduaren baitan aliantzak josi eta hauek indartzea da gure helburua, gure diskurtsotik hauetan eragiteko asmoz eta neska* gazteak lehen lerrora ekarriz.

NOLA ERAGIN NAHI DUGU MUGIMENDU FEMINISTAN:

Mugimendu feministak, egun, EH mailako mugarririk propioak markatzeko eta horiei erantzuteko gai dela erakutsi izan du. Horretarako, antolakuntza marko ezberdinak sortu izan dira, orokorrean koordinazioa bermatzeko marko nazionalak eta parte hartzea sustatzeko eta tokian tokiko errealitateari erantzuteko espazio lokalak. Antolakuntza marko hauen funtzionamendu eta eraginkortasuna egokia izan bada ere, mugimendu feminista bezala estrategia bat garatzera bagoaz, ezinbestekotzat jotzen dugu erronka konkretuei erantzuteko sortzen diren espazioetatik haratago, antolakuntza marko iraunkorrak existitzea, nazional zein lokalak. Aurrerapausuak definitzeko, bidea nola egiten goazen baloratzeko eta unean uneko testuinguruaren arabera, estrategia berdefinitzeko. Marko horietan, emakumeen* perfilen aniztasuna bermatu beharko litzateke, ikuspegi ezberdinak eta zapalkuntza guztiak aintzat hartzeko. Beraz, neska* gazteok ere, bertan egon behar dugu.

Bestalde, mobilizazio jendetsuek erakutsi bezala, asko dira mugimendu feministarekin identifikatuta sentitzen diren emakumeak*. Asko dira, emakume* guztion bizitzak erdigunera ekarri nahi dituztenak eta biolentzia patriarkalaren aurrean, sumindura, haserrea eta emakumeon* kontrako indarkeriarekin amaitzeko konbentzimendua erakutsi dutenak. Baina emakume* asko ere, arrazoi ezberdinak direla medio (denbora falta, markoen zurruntasuna eta nolakotasuna, ez garelako haiengana iristen...), mobilizazio puntaletan haien ekarpena egiteaz gain, ez daukate espazio iraunkorrik eragiteko. Mugimendu feministak gai izan behar du egoera ezberdinetara egokitzen diren espazioak eskaintzeko, gure funtzionatzeko ohiko modu zurrunetatik haratago. Emakume* guztiengana iristeko saretze lan sakon bat egitea dagokigu. Beraz, antolakuntzaren garrantzia azpimarratu behar dugu. Lehentasunezkoa da feminismoak batzen duen masa mobilizatzailea artikulatzeko espazioak sortu eta hauen beharra azpimarratzea. Emakumeon* gehiengoa ez badugu parte hartze espazioetara erakartzen, nekez lortuko dugu mugimendu feministaren erronkei heltzea eta emakume* guztien zapalkuntza eta errealitateari erantzuten dion feminismoa eraikitzea.

Neska* gazteok ere, paper garrantzitsua daukagu guzti horretan, asko baitira mugimendu feministarekin bat egin baina bertan ekarpena egiteko lekurik aurkitzen ez duten neska* gazteak. Egun, euren buruak feministatzat dituzten neska* gazte ugarik haien inguruko eremuan apurka apurka eragiteko ahaldundu dira eta feminismoari haien ekarpena egiten diote bertatik (sare sozialen bitartez, familia egituretan, lagunen artean komentario matxistak egiten direnean, jai giroan baboso bat gerturatzen zaienean...) Gertuko espazioan eta harremanetan eragitea ezinbestekoa bada ere, kolektiboaren garrantzia azpimarratu behar dugu. Jendartearen kapa guztietan inziditzeko antolatuak eta saretuta egon behar dugu. Neska* gazteek ere antolatzeko beharra sentitu behar dute, mugimendu feministaren erronka potoloei heltzeko.

Neska* gazteak antolarazteko, lehen pausua guzti haiengana iritsi eta saretzea litzateke.

Egun, neska* gazteok ez gaude egituratuak. Neska* gazte talde ugari existitzen dira eta nahiz eta saretuak edo sarete bidean gauden, ez gaude egituratuak. Guri ere badagokigu, gure zapalkuntza eta errealitate propioetatik abiatuta estrategia eta mugarri konpartitu batzuk zehaztea. Horretarako, ezinbestekoa izanik koordinatzeko eta saretzeko, espazio eta forma ezberdinak eraikitzea. Logika horren baitan, kokatzen ditugu duela hilabete egin ditugun Neska* Gazteen Topaketak, zeintzuk elkar harremantzeko eta elkarrengandik ikasteko baliatzeaz gain, aurrera begira neska gazteok* eman beharreko pausuen inguruan eztabaidatu eta hausnartzeko espazioa izan dira. Bertan, ditugun beharrak aztertu eta aurrean ditugun erronka nagusiak zehaztu ditugu.

Topaketetan zehaztu ahal izan genuen **Mugimendu Feministari autodefentsa feministaren borrokaz eragingo diogula**, ulertuta gaur egun gazte esparruan, borroka hau agortua dagoela duen ulerkera mugatuagatik, izan ere eraso matxista bati erantzuteko estrategia soilizat erabiltzen genuen autodefentsaren ulerkera zabalago bat egin gabe.

Beraz, autodefentsa feministaren ulerkera bateratu baterako hausnartu ostean aukera ikusi genuen borroka honetan gazte izaerak ematen digun freskotasunaz borroka honetan molde, estrategia eta egiteko era berritzaileak berrasmatzeko.

Praktika eta hausnarketa hauek guztiak aurrera eramán ahal izateko eragiteko hainbat espazio eta marko sortu beharko ditugu. Espazio hauek intergenerazionalak izan beharko dira, memoria kolektibotik berrikasi, transmititu eta belaunaldien arteko zubiak eraikitzeke zein belaunaldi berrietara heltzeko. Espazio mistoetan ere egon beharko gara, batez ere gazte mugimenduko espazioetan, hauetan ikuspegi feministatik eragile horien jardun feminista bermatzeko.

Gaur egungo gizarteak dituen berezitasunei egokituz, sare sozialak ezinbesteko elementu bihurtu dira diskurtsoa zabaltzeko, izan ere neska* gazte askok bertan hasten baitute haien politizazio prozesua, beraz hauen erabileraren inguruan hausnartu eta gure alde erabili beharko ditugu. Ezinbestekoa izango da ere, kultura eta sorkuntza arloan erreferentzia berriak sortzea belaunaldi berriak politizatzerá bidean, gure diskurtsoaz eragiteko baliatuz.

Ahaztu ezin dugun eragin espazio nagusietako bat heziguneak dira, gazteak aktibatzeke daukaten potentzialagatik. Izan ere, gazte asko elkartzen diren espazioak dira eta antolatzeke eta eragiteke aukera handiak ematen dituzte. Hauetan eragitea neska* gazteoi dagokigu bereziki, belaunaldi berriekiko daukagun gertutasun naturalagatik. Hauek gainera hezkuntza sistemari hezkidetzatik erantzuteke aukera ematen dute, ulertuta hezkuntza sistema neska* gazteoi bereziki eragiten digun eta biolentzia estruktural birproduzitzen duen instituzio bezala.

Eginkizun hauek guztiak agenda feminista zein sozialean kokatu behar ditugu, hauen baitan gure mugarri propioak definituz eta jada zehaztuak daudenetan neska* gazte perspektibatik eraginez. Diskurtsoa modu integral batean gizarteratzeko ezinbestekotzat ulertzen dugu data konkretuetatik haratago doan plan integral bat definitzea, neska* gazteontzako bideorri bat markatzen duena, diskurtso zein egiteke modu bateratu batekin, eta benetan intziditzeko gaitasuna sortzen duena.

Badugu indarra, badugu norabidea eta badugu lana. Neska* gazteok badugu eta izango dugu zeresana. Borroka feministak egiten gaitu eta mugimenduak feminismoz blaitzera gatoz.

Geratzeko etorri gara eta herri feminista eraikitzen jarraituko dugu!